

Luis Aróstegui Gamboa

POEMAS INACABADOS

AMAITU BAKO POEMAK

A. Onaindia'k

euskeratuta

CON LAS DEBIDAS AUTORIZACIONES

Bear diran baimenakaz

Depósito legal: BI 1.845 - 1969

GRAFICAS BILBAO - Gordóniz, 28 - BILBAO

PROLOGO

Varias veces he intentado acabar estos poemas. Momentos de la vida que los quisiéramos totales, pero que sólo nos tocan o se insinúan en el fondo. Ahora me parece que lo mejor de ellos es lo inacabado, eso huyente que si lo pudiera coger por el cuello, moriría. Lo que nos hace clamar por un cielo nuevo y una tierra nueva.

Y, como siempre, los poemas no son la vida, toda la vida, ni lo más importante de ella. Lo más importante apenas lo sabe uno mismo.

ITZ-AURRE

Bein baiño geiagotan amaitu nai izan ditut olerki oneik. Bizitz-une dira, oso-oso geureak nai geunkezanak; izate-ondoan, baiña, ikutu edo erdi adierazo bakarrik egiten yakuzanak. Eurretan onena amaitu beko ori dala deritxat orain; iges doan ori, samatik oratu ezkeror, ilgo litzatekena. Zeru barri bat eta lur barri batez oiur daragiskuna.

Eta, beti lez, olerkiak eztira bizitza, bizitz osoa, ezta beraren ardurazkoena be. Doguzan gauzetatik beinena, ain zuzen, noberak be ozta-oztan daki.

POEMAS INACABADOS

AMAITU BAKO POEMAK

ESCULTURAS CLASICAS

Bronces y mármoles humanos,
bellos son, serenos.

Ideas y anhelos incorruptibles,
quedaron
cuerpo o resplandor
o sombra del paraíso.

Oh llama apenas,
oh ademán
hacia la eternidad.

Un buitre les desgarró,
como a mí, pecho y vientre.
La muerte de esta vida
les amortece la lumbre
o el espíritu riente de su cuerpo.
Pero aún les ilumina, tristes,
la nostalgia del paraíso.

ZIZEL-IDURIAK

Giza-borontze ta atxurdiñak
ederrak dira, geldi-nareak.

Gogoeta ta egarri ustel-eziñak,
gorputz edo dizdizerak,
naiz atsedeen-baratzeko kerizpe,
ortxe gelditu ziranak.

O doi-doiugar,
o betikotasunerantz
ziñu-jokera.

Sai batek urratzen dautsez,
neuri lez, bularra ta sabela.
Bizitz ontako erioak
illaunditzen dautse argia
edo euren soin-arnas alaitsuak.
Baiña oindiño dizdiz dagitse, zurbil,
atsegin-tokiko bizi-miñak.

Niños

Heridos de alegría
en la mañana,
son invitación a la gracia.

Haced lo que queráis:
es para vosotros el día
y los ríos y los árboles.

Pero sólo un instante
pura libertad ilumina.
Sin poder socorrerles,
un grito apenas, un gesto,
lejanos en el aire.

UMEAK

Goiz-aroan
alaitasunez zaurituak,
eskerrerako dei dira.

Egin nai dozuena:
zuentzat dira eguna
ta errekek eta zugatzak.

Baiña unetxo batez bakarrik
askatasun garbiak argi dagi.
Laguntzarik eroan eziñean,
garrasi bat doi-doi, kiñu bat,
egurats zear, aldenduak.

PATIO ESCOLAR

(St. Mary of Carmel School,
Dallas, Texas)

Plaza de niños y gritos,
claridad
en la ciudad de los hombres.

Pero quién recuerda apenas
rostros de entonces.

Mundo volátil
de risas y gemidos
en el viento que empuja los días.

Amables de tristeza,
yo pido la alegría
para vosotros, alegría
y lúcida libertad.
No subterráneos explosivos.

Temo por esos ojos, alegría
a punto de llorar.

Cuando los niños se han ido
dejando el silencio,
vienen las palomas
a comer las migas de sus bocadillos.

IKASTOLAKO LARRINA

(«Karmen'go Andra Mari» ikas-
tola, Dallas, Texas)

Umetxoen enparantza ta zantzoak,
argitasuna
giza-semeen uri barnean.

Baiña nok gomuta ozta-oztan
garai artako begi-bitarteak.

Barre ta intzirizko
mundu egazkorra
egunai bultz daragioen aizetan.

Maitagarri zurbillok,
pozkarior eske naukazue
zuentzat, pozkarior
ta askatasun dirdaitsu eske.
Ez lur azpiko lerkairik.

Izu naz begi orrei begira,
poztasuna negar-bearrik.

Umeak joan ondoren
ixilla egin danean,
egazka datoz usoak
arein amarretako pitsak jatera.

QUE HABRA SIDO

Qué habrá sido de aquel viejecito
que había estado en la Guerra del Catorce
y que emocionado nos contaba
las heroicidades y los horrores.

Era un día brillante de verano,
sentados en la hierba bajo los chopos.
Nuestras vidas de jóvenes estaban lejos
de aquel mundo sumergido.

El vio morir a sus amigos.
Le escuchábamos con respeto,
pero como si fuera una leyenda.

Dentro de poco, mochila a la espalda,
continuaríamos la caminata,
y no le veríamos más en la vida.

Nuestra alegría ruidosa
hecha de presente y futuro,
no le ofendía en sus recuerdos.
Alguna maravillosa unión había
entre el pasado y aquel día puro y libre.

Los muertos del Catorce,
el viejecito después de tantos años
y los nuevos jóvenes,
un mediodía bajo los chopos.

Qué habrá sido. Nosotros mismos
andamos ya dispersos por este mundo.

ZER IZAN ETE DA

Zer jazo ete yakon
Amalagarreneko Gudan
egon zan aguretxu ari,
egitsari ta lazkurak
biotz-dardar edesten euskuzanari.

Udaldiko egun argitsua zan,
txopo azpiko bedarrean jesarrita.
Gure gaztaroko bizi-uneak urrin egozan
mundu murgil-azi aretatik.

Ilten ikusi zitun bere lagunak.
Begirunez entzun oi geuntson,
baiña ipuin bat bai'litzean.

Andik laster, zakutoa bizkar-gaiñ,
aurrera egingo gendun bidean,
eta ez gendun a geiago iñoz ikusiko.

Gure ots-aundiko poztasunak,
oraiñez ta geroz osotuak,
ez eban mintzen bere oroitzetan.
Korapillo arrigarriren bat ba-zan
joanaren eta egun garbi-azke aren artean.

Amalagarreneko illak,
ainbat urte ondorengo aguretxua
ta gazte barriak,
eguerdi batez txopo azpian.

Zer jazo ete yako. Geu be, arrezkero,
lurbira ontan zear gabiltz, banatuak.

DEL PASADO

Del pasado ¿sólo quedan
hierros viejos en el alma?
¿Ya no es posible volver
a los rostros amados,
a la alegría primera?

Todo fue alejándose en las aguas
cada vez, sin despedirse.

Pero queremos volver. Si no volvemos,
la muerte es el corazón de la vida.

Cómo se entiende esto, que el hombre
quiere seguir y quiere volver,
quiere siguiendo volver.

IGAROTIK

Igarotik, burdiña zaarrak
soil-soil gelditzen ete ariman?
Oraiz gero ez ete gaitekez itzuli
maite izan genduzan betargietara,
lenengoko pozaldietara?

Uretan alde-egiñik joan zan dana,
unez une, agurrik esateke.

Baiña biurtu nai dogu. Biurtu ezik,
eriotza dogu biziaren biotz.

Zelan da au ulertzen: gizonak
aurrera ekin nai ta itzuli gura,
bideari jarraituz itzuli gura.

RECUERDOS DE ALGUN OTOÑO

Entre pinos y robles amarillos
voces de niños jugando.
Pobres y todo,
qué mundo transparente y seguro.
Qué alegremente llevaban
la leña sobre el hombro.

Miren, Begoña, Lucía...
eran bonitas en la escarcha
camino de la escuela.
Lluvia y frío no podrían
amenazar su cálida alegría.

Los maíces maduros
cargaban de fuerza el silencio.
Y una esperanza de fondo
recreaba la vida, el amor y todo.

El viento de lejos no venía en vano.
Enseñaba la sabiduría
de las distancias y los tiempos
a los humildes de corazón.
Un estremecimiento alumbraba
el giro perpetuo de la vida.

Bandada de palomas
desde el prado y la corriente
se perdió hacia otra parte.

A pesar de la lluvia, las cabras
seguían buscando las hojas más tiernas.
Era la hora en que las voces
hacían más hondo el silencio
y se recogían los hogares.

UDAZKEN BATEKO GOMUTAK

Piñu ta aretx oriska artean
aurtxoen abotsa, jolasketan.
Ez-eukiak izanik bere,
bai mundu aratz segurua.
Pozik bai eroiela egurra
bizkar gaiñetan.

Miren, Begoña, Luzia...
politak ziran antsigar gaiñean,
eskolarako bidean.
Ez eurik, ez otzak
ezin leikeen zemaitu
arein poz-jario gartsua.

Artaburu umaotuak
pixuz astuntzen ixilla.
Ta barren-barrendiko itxaroak
gozatzen dau bizia, maitasuna ta dana.

Ez etorren alper urriñetiko aizea.
Bidarte ta aldien
jakituria irakasten
biotzez apal ziranei.
Dardar batek argitzen eban
biziaren betiko joera.

Uso-talde aundia,
solotik eta tiraiñetik,
an galdu zan beste alderantza.

Auntzak, naiz-ta euria izan,
osto samurren billa ebiltzan.
Otsak ixillaren altzoa
sakonagotzen eben ordua zan,
eta sualdeak barrurantz biltzen.

Allí estábamos. El amor
no era palabra que se decía,
sino todo aquello y nosotros.

Sin nudos de ambiciones y temores,
era el momento puro
de la imagen de lo eterno.

An gengozan. Maitasuna
etzan itz esana,
a guztia ta gu baiño.

Andimin ta izuzko biatxin bage,
beti danik danaren iduria zan
bere lipar garden txukunean.

NIÑOS SUBIDOS

Niños subidos a los cerezos
en junio.

Eterno parecía y clarísimo
el día.

No os perdonará la vida,
hechos para ser mortalmente heridos.

Qué terribles pueden ser
los ojos de un niño.

Qué fuerte puede ser
su corazón callado.

Confundidos entre cerezas y pájaros,
pedacitos de luz.
Diferente era la vida.

MUTIKOAK KEREXETAN

Mutikoak kerexetara igonik
bagilllean.

Egunak
betikor zirudian
eta argia.

Ez dautzue biziak parkatuko,
eriaz zauritzeko egiñoi.

Mutiko baten begiak bai izukor
izan daitekezala.

Aren biotz marmuxa bai sendo
izan daitekela.

Kerexa ta txori artean,
nahasian, argi-txatalak.
Bestelakoa zan bizia.

CANTO VASCO

(Según el canto popular «Ama
maite, María»)

Voces amplias de nuestros jóvenes
en las mañanas de domingo
subiendo en coro a la Virgen María.

Parten del centro del alma,
recorren todo el cuerpo
y se encuentran puramente en el aire.

Mutilles y neskatiillas
arrastran en su canto a través del cuerpo
el silencio del heno dulce
entre niebla y primavera,
y montaña y mar
y todo nuestro pueblo.

Hechos también para el juego y la danza
y para el buen alegrarse,
entregan desde el fondo la melancolía
del amor tierno y sufrido.

Cuando los años irán pasando,
quedará lo más noble de vosotros
en ese canto entero
que sube a los brazos de Andra Mari.

En el viento de mayo
o en la lluvia de septiembre
lo oiréis dentro eternamente joven.

EUSKAL ABESTIA

(*Ama maite, Maria* erri-abetia
lez)

Gure gazteen abots bete-nasaiak
igande goizetan
Ama Birjiñagana batera igonak.

Arima erdi-erditik dira urteten,
eta gorputza bete-betea igarorik,
aidean dira garbiki aurkitzen.

Mutillak eta neskatiak
euren kantuan daroe soin zear
elbitz bigunaren ixilla
laino ta udabarriaren artean,
eta mendia ta itxasoa
ta gure erria oso-osorik.

Jolas eta dantzarako be egiñak,
eta poz-jario ta alai onerako,
barru-barrutik emon daroe
maite-su ezti jasanaren larria.

Urteak igaroz doazanean,
zuon bikaiñik bikaiñena
Andra Maria'ren besoetara digoen
kantu bete orretan da geldituko.

Maiatzeko aize-bultzean
naiz irailleko euri-jasean,
barnean entzungo dozue, beti gazte.

POR QUE

¿Por qué nos parece en la vida
más bella que el fruto la flor?

¿Podrá ser el fruto
razón completa de la flor?

¿Los caminos, no son más que caminos
entre pueblos y ciudades?

¿Y los niños, no son nada
más que tallos leves de hombres?

Todo camina, avanza y crece,
y debe llegar a una meta.
Pero cuando llegamos,
¿no hemos perdido nada?

ZERGAITIK

Zergaitik iduritzen yaku bizitzan
lorea, garaua baiño, ederrago?

Garaua izan ete daiteke
lorearen xede betea?

Bideak, erri ta urien artean,
ez al dira bide besterik?

Eta umeak, ez ete dira ezer
giza-kimu ziztrintxo baizen?

Dana dabil aurrerantz, eta aziaz,
ta xede batera bear dau eldu.
Baiña mugara elduterakoan,
ez ete dogu ezertxo be galdu?

IMPRESION EN NOVIEMBRE

Detrás del bosque amarillo
aún se precipitan los coches.
Sus focos contra la noche
proclaman la victoria de la vida.

Pero una sombra total
se alza en silencio de la tierra.

Recibe, Dios, mi juventud.

Sombras de otoño amables,
alba a punto de romper
en mi propio corazón.

AZILLEAN ZIRRARA

Baso-arte oriaren gibelean
oindiño be aringa dabiltz kotxeak.
Onein argi-kuskuak, gauari aurka,
bizitz-garaipena dabe iragarten.

Kerizpe-une oso bat, alan be,
lurretik jagiaz doa ixillean.

Artuizu, Jauna, nire gaztetasuna.

Uda-goieneko itzal maitagarriak,
urratu-zori dagon goiz-antza
or neure biotzaren muin-muiñean.

MOMENTO DE LA ORDENACION SACERDOTAL

El coro imploraba sobre nosotros
la piedad de los santos en guirnaldas.

Un momento se rompió el duro temor.
Un llanto interior subía desde mi siempre,
caía sobre el niño, el muchacho, el joven
de bruces en tierra.

APAIZTU NINTZAN UNEKOA

Abesbatzak gure gain, lore ustaitan,
santuen errukia ozen eban eskatzen.

Ikara latza ausi zan lipar batez.
Barru zotiña joian gora nire betitik,
eta lurrean auspeztutako aur, mutiko, gazte
gainera zan jausten.

EL PENSAMIENTO

El pensamiento sólo ilumina
un arco tembloroso
en la noche infinita.

Detened el río turbio
de la carne y de la sangre.
Decidme un momento
de la noche y de mí y de vosotros.

Con mi lumbre fugaz
atisbo apenas el horror
del espacio infinito y nocturno.

OLDOZKUNA

Oldozkunak ustai dardaratu bat
istatzen dau bakar-bakarrik,
amairik ez dauan gauean.

Geldi egizue aragi-odolezko
ibaizabal nahasi ubela.
Gauetz ta nitaz ta zuetzaz
esaidazue tanga batean.

Neure sutargi igeskorragaz
ozta-ozta dot aztarnatzen
usgune gautar zabalaren izua.

00000

SEGAMOS

Segamos flores o llamas,
pero las raíces nos poseen
y todo se vivifica de dentro
maldito y bello.

Cuántas veces te pedimos, Dios,
nos arranques, de veras nos arranques
las raíces hechas nuestra vida.

Te buscamos, tensión final de vida,
pero acosados por llamas y terrores,
desvalidos, no sabemos
si el grito o el silencio.

MOZTUTEN DOGUZ

Lora naizugar moztuten doguz,
baiña susterrak gaukiez oindiño,
ta dana biztu-erazten barrutik
madarikatu ta ederrik.

Sarri eskatzen dautzugu, Jainko,
erauzi daiskuzuzala, egiaz erauzi,
geure bizia egiñiko susterrak.

Zure billa gabiltz, bizi-tenk azken,
baiñaugar ta ikaraz erasoak,
bakar eta zurtz, ez dakigu
barne-garrasia ala ixiltasuna.

GETSEMANI

Te busco, ausente, pálido,
inconsistente para mí.

No me maldigas, no me aplastes
contra mí mismo, Padre,
que empiezo a sangrar de la boca.

Sí, tu amor
tiene que ser diferente.
Amor horroroso
hasta la desesperación, amor
que no parece amor.

GETSEMANI

Zure billa nabil, urrun ta laru,
neuretzako be singila.

Enaizu gaiztetsi, ez zapaldu
neure kontra, Aita orrek,
aotik odol-jario naukazu-ta.

Bai, zure maitasunak
bestelakoa izan bear dau.
Maitasun ezaingarria
erre-aldiraiño, maitasun
ez dirudian maitasuna.

ES SOLO EL VIENTO

Es sólo el viento en la noche
del gran Texas.
Ulula la sirena de una ambulancia.

Oh, sí, el pecado fulgurante y dulce
devorando cuerpos y almas.

Y es tan fiero mi propio mundo.
Tendría que huir de la llanura.
Pero hay sólo viento en la noche.

Gracia, traspaso de Dios,
hermosura fuerte y nueva.
Pero ¿dónde está?
Pablo de Tarso, borracho de gracia,
¿dónde está?
Ven, Señor Jesús.

Y la carne y el espíritu dicen
en la noche:
Ven, Señor Jesús.

AIZEA DA BAKARRIK

Aizea da bakarrik, aizea,
Texas aundiko gauean.
Txistuka dator gaixo-beribil bat.

O, bai, oben ditzikor eta gozoa
gorputz-arimak iruntsi-bearrez.

Ta ain da uxua nire mundu au.
Lautik neuke iges egin bearko.
Baiña aizea besterik ezta gauean.

Esker, Jainkoaren emotea,
edertasun sendo ta barria.
Baiña, nun dago?
Tarso'ko Paul, eskerrez ordi,
nun ete dago?
Zatoz, Jesus Jauna.

Eta, gauaren altzoan,
aragiak eta gogoak diñoe:
Zatoz, Jesus Jauna.

RESURRECCION

Resurrección, gran Resurrección,
manantial de los siglos
y alegría de nuestros padres.

Ramitas verdes y monaguillos.
Estrenan mantillas y risas
las hijas de Jerusalén.

Alegría del amanecer,
alegría al aire libre.
Viento suave que no sabemos
de dónde viene ni a dónde va.

Ven, alegría inmensa,
sobre los campos recientes.
Ven a cuerpos y almas,
gran Pascua de casta luz.

BERBIZTEA

Berbiztea, Berbizte aundia,
gizaldien sorburua
ta gure arbasoen pozkario.

Abar orlegiak eta eliz-mutikoak.
Buru-zapi ta barreak len-aldiz
dakarrez Jerusalem'go alabak.

Egun-zabalkerako alaitasuna,
aize zabalean poz-jario.
Nundik datorren ez nora doan
ez dakigun aize belaska.

Zatoz, poz ezin geiagokoa,
solo ta zelai barrietara.
Zatoz gorputz eta arimetara,
argi aratzezko Pazko aundia.

CAMPOS DE COLOMBIA

Casitas temerosas, unas a otras
se abrigan en la soledad.
De súbito la buganvilla
suelta en el aire alegría.

Rostros de ligero bronce,
resplandecen de salero
y llevan siempre encendida
la chispa de la amistad.

Tienen Dios y tienen mundo,
y camisa limpia los domingos.

Pero y una penita tienen,
entre ceja y ceja,
penita con la chispa casada.

Es también penita de amor,
y penita de penita.
Como si algo recordaran
o algo todavía esperaran
desde mucho tiempo.

KOLONBIA'KO ZELAIK

Ettxetxo bildurtiak, bakarrean,
batak besteari babes damotsa.
Bat-batean buganbillak
aidean edatzen dau bere poza.

Borontze ariñezko arpegiak,
ba-dabe poza ta piperra
ta beti ixioturik daroe
adiskidetasunezko su-txiñarra.

Jainkoa daukie, ta mundua be bai,
ta igandeetan alkondara garbia.

Baiña, ta zimiko bat be ba-daukie,
bekane bien artean tinkotua,
su-txiñarraz ezkonduriko zimiko.

Maitasun-zimiko be ba-dozu,
eta zimikoaren zimiko.
Zerbait gogorazi nai ba'lebe lez,
edo-ta zerbait itxaron oindiño
aspaldi-aspaldi danetik.

SOLOLA, EN GUATEMALA

Niño que vi en el torrente
beber agua en sombrero de paja.

Está el secreto de la vida
en el agua que se escapa
entre la fuente y la boca.

SOLOLA, GUATEMALA'N

Sakosta uiolean ikusi neban aurra
lastozko kapelan ura edaten.

Biziaren ezkutua daukagu
iturri ta ago bitarte
igesi doan ur-txirrian.

GUADALUPE DE MEJICO

Guadalupe, palabra que clarifica el aire.

Llegan de los pueblos de Dios,
de Nuevo León, Durango, Michoacán o Querétaro.
No son los que en Acapulco y Mazatlán
refinadamente destripan la vida.
Elementales y fuertes,
no saben de frivolidades,
hombres que apenas tienen
tiempo para el pecado.

De rodillas se acercan muchos
regando de fe la piedra
y de hermosura humana.
Esta madre agotada,
con dos niñitos de pie a cada lado
que nada entienden, entienden amor,
o la joven de azul, para desmayarse,
y el joven que perdió la vergüenza
por amor de Cristo y su Madre.

Van entrando con los ojos clavados
en la benigna imagen,
ojos de praderas y bosques
que aman o lloran sin poder distinguirse.

Sí, la Madre está aquí,
está aquí el Señor Jesús,
en el gemido y el silencio,
entre la carne y la espada.

MEXIKO'KO GUADALUPE

Guadalupe, aidea argitu daroan itza.

Or datoz Jainkoaren errietatik,
Nuevo Leon, Durango, Mitxoakan, Keretar...
Eztira Akapulko ta Mazatlan'en
bizia malmutz urratu oi dabenak.
Nabariak eta zangarrak,
txolin-zerik ez dakie ezer,
pekaturako astirik be
doi-doi daben giza-semeak.

Belaun-gaiñ dira urreratzen asko,
arria fedez ureztaturik
eta giza-edertasun guriz.
Ama agor-xetu au,
maitasuna ezik ezer ez dakien
aur bi zutik alboan ditula,
naiz urdiñezko neska, alditxartzeko,
eta Kristo ta aren Amagaitik
lotsea galdu eban mutilla.

Barrura sartuaz doaz begi biak
iduri laztanean josirik,
zelai ta basoetako begiak
bereiz ez alean maite-negar dagienak.

Bai, or dago Ama,
emen dago Jesus Jauna,
intzirian eta ixillean,
aragi ta ezpata artean.

No vinieron por las grandes avenidas,
ni se ocupan del vestido o del calzado.
Sólo el cántico y la oración,
sólo la mirada en la mirada.
Y tienen la gracia, hermanos,
cual de un pañuelo de flores
en el bolsillo trasero
del pantalón remendado.

Vi a jóvenes esposos amarse
ante los ojos de la Virgen,
al padre contar a sus muchachos
la antigua historia aproximada,
y la verdad verdadera
pasar de corazón a corazón.
Les vi en corros alegrarse
junto a la casa de la Madre,
reírse y exclamar por nada
en vario delicioso acento
que la voz adulta convierte
en música y ternura de niño.
No me cansara yo escuchando
esa música voladora
donde el alma se viene a la mano.

Virgencita mejicana,
tocada de humildad y de cielo.
Tú que en piadosa inocencia
acoges lágrimas y pecados,
no mires sino el corazón,
que ha llorado mucho y es niño.

Ez datoz ibil-bide aundietatik,
jantzi-oiñetakoz eztira kezka.
Kantua ta otoitza bakarrik,
begizkuna begizkunean soil-soil.
Eta ederra dabe, anaiok,
lore-zapi batek aiñakoa
praka adabakituaren
atzekaldeko ziskuan.

Senar-emazte gazteak ikusi nitun
Neskutsaren aurrean alkar maitatzen,
aita bere mutikoai kondaira zar
urbillekoa nasai edesten,
eta egiazko egia
biotzetik biotzera aldatzen.
Alai-erazten ikusi nitun aldraka
Amaren etxe aldamenean,
barreka ta oiuka ezer-ezagaitik
garerdikoen abotsa
aur-musika leun biurtu oi dauan
askotariko doiñu atsegingarrian.
Ez nintzake eresi egalari ori
entzunik egundo be gogaituko,
gogoia eskura bai datorkit.

Mexikar Birjiñatxu,
zeruz apal jantzia.
Zuk, erru-bakotasun biotz-beran,
malkoak eta obenak dozuz artzen;
ez egizu biotzera ezik begiratu,
asko negartu baitau ta ume dozu.

LAGO DE DALLAS (Diciembre 1965)

Del verano junto al lago
ya no queda amor.
Sólo el viento frío domina
y estremece los juncos.

Oh dulce abril en diciembre,
corazón tierno del universo,
truncado anhelo de más vivir.

Nadie acoge ahora en silencio
la invisible saeta que traspasa
la carne trémula
y va del tiempo a la eternidad.

Dos muchachos se lanzan el balón
y gritos fúlgidos.
Gritos eternos en esta soledad
a la primavera que se fragua dentro.

DALLAS'EKO ZINGIRA (1965, lotazilla)

Udatik zingiraren ondoan
gaur ezta maitasunik geratzen.
Aize otza dabil arat-onat
eta iiak ditu dardaratzen.

O, jorrail samur lotazillez,
lurbiraren biotz bigun erreza,
geigo bizi-naiaren isi moztua.

Orain eztau inok be ixillean artzen
aragi dardaratsua alderen alde sartu
ta alditik betiraun altzora doan
gezi sakon ezin-ikusi dana.

Mutiko bi pelota gora jaurtika,
ta deadar dizditsuak.
Betiko irrintziak ixiltasun ontan
barru-barru eratuaz doan uda barriari.

LOS TIEMPOS

Para todo hay su tiempo,
tiempo de abrazar y tiempo de olvidar,
tiempo de venir y tiempo de ir.
Los amores de abril siguiente
no se acordarán del pasado.

Siempre fue así, triste y bello.
Pero el hombre no aprende,
animal que sufre del tiempo.

En los ciclos el centro,
en el tiempo la eternidad.

Hay tiempo de dudar
y tiempo de volver a dudar.
Pero el corazón hunde raíces
bajo el mundo movedizo.

GARAIAK

Orotarako dogu bere garaia,
besarkatu ta aitzutekoa,
etorri ta joateko garaia.
Urrengo aprilleko maitasunak
joandakoa eztau gogoan izango.

Beti izan da olantxe, itun eta eder.
Baiña gizonak, garaiaz miñetan
egon arren, ez dautzu ikasten.

Aroetan erdi-unea,
aldian betirauna.

Ba-da ezpaian egoteko aldia,
ta barriz ezpaira itzultzekoa.
Biotzak, baiña, susterrak dagiz
lurbira iraulkorrenaren azpian.

CONCIERTO EN DALLAS

Entre colinas de Pascua
viento nuevo llega de lejos,
de la llanura y de más allá.

Se expande la música y se mezcla
con azaleas y gracias.
Primavera hiriente.
Pudiera estallar al infinito,
pero es sólo grito impotente,
sólo resonancia muda
de la raíz a la garganta.

Bajo los árboles en viento y flor,
¿es primavera o es otoño?
El corazón presiente otoño
y secretamente lo ama.
Ama otoño lejano,
temiendo y queriendo,
desde la herida de la primavera.

ERESALDIA DALLAS'EN

Pazko aldiko muiño artean
aize barria dator urriñetik,
lautadatik eta urriñagotik.

Eresia zabalduaz doa
ta azaleaz eta eskarrakaz nastuz.
Uda barri zaurigarria.
Azken-bagera eztanda leiteke,
baiña didar aalgea ezta besterik,
dundurio mutua soil-soilki
susterretik zintzur-korapillora.

Zugatz azpiko aize ta loratan,
udabarri da ala udagoiena?
Udagoiena dau biotzak somatzen
eta laztan dau ixil-ixillik.
Maite dau urriñeko udazkena,
ikaraz ta irritsez,
uda barriaren zauritik.

LAGO DE DALLAS (octubre 1967)

Cascos de botella y latas de cerveza
medio enterrados en la arena,
encendieron de alegría algunos labios.

No hace mucho,
pero qué lejos está todo.
Si está pasado,
no importan meses o años.

Mis muchachos pasan riendo
sobre desechos de la vida de un día.
Siempre es primavera para ellos,
y ni ven al anciano, de espaldas,
sosteniendo la caña sobre el lago.

Pero el verano siguiente
todo habrá desaparecido.
Viento y agua lo enterrarán,
y todo comenzará de nuevo.

Me llaman a jugar a grito limpio.
Me pasan el balón, se lo devuelvo.
El corazón presiente y vela,
mientras todos vamos pasando.

DALLAS'EKO ZINGIRA (1967, urrilla)

Bonbil pusketak eta garardo xerrak
ondar gorrian erdi obiratuak,
pozarren ixio ebezan ezpan batzuk.

Lengo zergeran,
baiña bai dagola dana urrin.
Joana baldin ba'da,
illak naiz urteak bost axola.

Barreka doaz nire mutikoak
egun bateko bizi-ondarren gaiñ.
Oneintzat beti dozu udabarri,
ta ez dakuse zarra, bizkarka,
zingira gaiñean kañabera daukala.

Urrengo udaldian, oster, a,
dana dokezu alderatua.
Aize ta urak ondatuko dabe,
ta oro asiko da barriro.

Jolasera dei dagiste ijui utsean.
Baloia damoste, ta nik arei biurtzen.
Biotzak asmatzen dau ta ernai dago,
guztiok igaroz goiazan bitartean.

DE LA VIDA

Decimos pasión de vida
y otras palabras y metáforas
para sacar afuera lo indecible.
Pero la vida es más sencilla
en su misterio.

Ir y venir y darse la mano
o meter clavos en una tabla,
y tantas otras cosas.

Buscamos palabras y amontonamos,
porque no podemos con el sufrimiento
de este fluir de la vida
rozándonos, bañándonos corazón y entrañas,
y la quisiéramos coger entre dientes.

Pero ésta es la gracia de la vida
que rozándonos, bañándonos,
arrastra los corazones al mar.

Esos gorriones que poco valen
y que ahora mismo desaparecen,
o los aviones que aterrizan o despegan,
¿no escriben algo en el aire?

BIZITZA DALA-TA

Bizi-griña esan oi dogu
ta beste itz batzuk, antz-eleak,
esan eziña kanpora aterateko.
Bizitza baiña bere ezkutuan
bakan berezkoagoa dogu.
Joan, etorri ta eskua emon
naiz zul baten untzeak sartu,
eta olako ainbat zerki.

Itzak billatu ta metatzen doguz,
bizi-jarion onen
neke-oiñazea ezin baitogu eroan
alkar irristatuz, biotz-errai bustiz,
eta agin artean gura genduke artu.

Au da oster a biziaren eskerra
ikutuz eta bustiz,
biotzak itxasoruntz irristatuz.

Balio gitxiko artatxori orreik,
ointxe berton ostondur diranak,
naiz jatsi-jagi dabiltzan egazkiñak
ez al dabe airean ezer idazten?

DILLEY

(Pueblo, en gran parte de origen mejicano, en el sur de Texas)

Hijos de planicies y de paz,
¿qué tienen que ver con Chicago y Nueva York?
Si cualquier hombre de este mundo
pone los ojos en sus ojos,
saben si es o no su hermano.

Son felices sus hijos
jugando descalzos
entre fardos de hierba seca.
O les basta el íntimo redil
con dos chivos y cinco chivas.

Ahora vienen al Padrecito
a hacerle montar en la yegua
que sabe bailar.

Acoge este mundo
si quieres ser como Cristo.
No era El un genio raro,
hombre sencillo de pueblo,
y creció gracioso pegado a la tierra.

Mientras se bautizan niños y se riegan melones,
con qué lenta sabiduría
van pasando estaciones y generaciones.
Y sin libros artificiales,

DILLEY

(Erri bat, geiena mexikar jatorriz, Texas egoaldean)

Lau-une ta bake zabaldiko semeak,
zer zer-ikusi dabe Txikago ta York'az?
Ludi onetako edozein gizonek
begiak jarri ba'dagiz arein begitan,
laster dakie euren anai danez.

Zoriontsu dira ango semeak
ortozik jolas ta jolas
bedar ondu pilloen artean.
Naiz barrengo borda naikoa dabe
akerko bi ta bost auntzekin.

Orain Aitatxo'gana datoz,
dantzan dakian beorrean
oni jarri eragitera.

Abegi on egiozu mundu oni
Kristo lez izan nai ba'dozu.
Etzan A txatxu bakana,
erri-gizon laua baizen,
lurrari lotuta eskertsu azia.

Umeak bateatu ta artoak jorratu ala,
jakite astitsuz
bai doazala aro ta gizaldiak.
Eta itaun uzuenetatik zaintzen

que no defienden de las preguntas más feroces,
cómo se toca despacio el misterio de la vida.

¿A dónde va todo esto?

¿Los jóvenes que se hallan entre mezquites
y los niños que hacen carreras de bicicletas?

Cuando todos se retiran
y quedo solo con la noche y el viento,
presiento acercarse la gran pregunta
que me sobrecoge de miedo.

etzaituen liburu putz-ontzi barik,
bizitz-ixilla bai ederto ikutzen.

Guzti au, nora ete doa?
Mezkite artean itz dagien gazteak
eta txirringa lasterrak dagiezan aurrak?

Guztiak bakarrera biurtu
ta gau aizeaz geratzean,
ikaraz arrailtzen nauan
itaun andia urreratuz dot somatzen.

LAS PALABRAS

Nosotros nos engañamos
con palabras de palabras
que llevan y traen aire.

Estos mejicanos de Texas,
bellos de tierra y esperanza,
no hablan palabras sino cosas,
que agarran como un puño
y tiran a la cara.

Los diccionarios no aprueban
sus palabras mezcladas.
Palabras de boca viva
que no pierden tiempo ni yerran camino
entre cuerpo y alma.

ITZAK

Guk geure burua dogu laztatzen
aizea daroen eta dakarren
itzen itzakin.

Texas'eko mexikar oneik,
lur eta itxaroz eder eginda,
ez dira itzez mintzo gauzaz baiño,
ikubillean lez oraturik
arpegira jaurti oi dabezanez noski.

Iztegiak ez ditue onartzen
arein itz naspillatuak.
Ago biziko itzak,
gorputz eta arima tartean
ez aldia galdu ez bidea uts
egiten ez dabenak.

BARRIO NEGRO EN DALLAS

Negrito negro de lengua rosa,
eres feliz y bello
dando patadas a un pote.

Todo el barrio, con barro y árboles
y chatarras familiares, es suyo.

Qué alegría despide
la llanta de automóvil en sus manos.

Sobre la cacerola de improviso
otras manos hacen saltar
un sentimiento fresco.

Yo les miraba algunas tardes,
criaturas del aire y rayos de sol,
ensayar como gomas
ritmos de palmoteos y caderas.

Cualquiera puede ser su amigo,
mano a mano.
Y su mirada expectativa
nunca se cierra
si llama el amor.

AUZOTEGI BALTZA, DALLAS'EN

Larrosa miindun baltz txikitxo,
zoriontsu ta eder az i
txonil bati ostikadak emonaz.

Auzo guztia, lupetz eta zugatzez
eta sendi-txatarrez, berea dau.

Bai poz ikara dariola
arein eskuetan beribil txirrindolari.

Kokeleta gaiñean, krik eta krak,
beste esku batzuk barne-eragin
samurkor bat dabe jalgi-erazten.

Nik so negioen arratsalde batzutan,
egurats-izaki ta eguzki erraiñuak,
esku zartada ta ipur-txuntxur pikoak
goma jaikikor bai'lirean saiotzen.

Edonor arein lagun daiteke,
eskuz esku.

Ta, maitasunak oles ba'dagi,
arein begi sista ustetsua
ezta egundo be zarratzen.

EVANGELIO DEL SORDOMUDO

No le hacían caso los demás muchachos,
y tampoco se le burlaban,
solamente le dejaban por tontito.

Por allá andaba todo el día,
a veces jugaba con piedras en la mano
o intentaba gritar a un coche que pasaba.

Pero él buscaba nuestros ojos,
que no le decían muchas cosas,
sino solamente lo más necesario.
Y a veces la felicidad era como el éxtasis
y daba saltos y gritos de alegría,
pobre hijo del hombre,
pobre hijo de Dios en este mundo.

Quién pusiera saliva amorosa en su lengua
y le arrancara palabras del alma.
Pero él no pedía tanto,
pedía con toda su alma,
mientras jugaba con unas piedras,
que nuestros ojos alumbraran los suyos.

GOR-MUTUAREN BARRI ONA

Ez aditu egitsen beste mutikoak,
eta ez egitsen ixekarik bere,
makito zalako itxi oi eben soilki.

An ebillen egun osoan ara ta ona,
eskuan arriakaz jolasten zan iñoizka
edo andik joian kotxe bati deika.

Baiña gure begiak billatzen zituan,
gauza aundirik ez iñotsenak urrean,
bear ebana bakarrik iñotsenak alan be.

Iñoiz lillura lako atsegiña eban artzen,
eta jauzika poz-garrasiak zitun ateratzen;
giza-seme gaixoa,
Jainko-seme gaixoa erbeste ontan.

Miñean nok jarri leikeon txu laztana
ta arimatik itzak ari atera.
Baiña ez eban orrenbeste eskatzen,
indar osoz au eskatzen eban bakarrik,
arri batzukaz jolasean ziarduala,
gure begiok bereak argitu egiezala.

EN EL TREN

Cuando los ojos y las manos alzadas
en despedida desaparecen,
quedan los postes eléctricos
llevando y dejando destinos,
y señalando el único camino.

Quedan ruedas y bidones abandonados.

Parece injusto que hagamos sufrir,
pues no hay quien resista el adiós de los ojos.
Pero hay que despedirse para amar,
hay que seguir con mirada silenciosa
el paso de los postes eléctricos.

Los bidones entre hierbas altas
la ida sin vuelta presagian.

Solamente los postes eléctricos
con idas y venidas
y con lo que el pecho resguarda
trazan la línea de la esperanza
de los ojos al corazón.

BULTZIAN

Begiak eta eskuak, jasorik,
agurka ezkututzen diranean,
tximistargi-abeak gelditzen dira
izpar-ituak eroan eta itxiaz,
eta bide bakarra erakutsiaz.

Txirrinka ta bidoiak
geratzen dira piper.

Ez dirudi zuzen min-aztea,
eroan eziña baita begi-agurra.
Baiña agur eiñ bear maitatzeko,
begirada ixillez jarraitu bear
tximistargi-abeen igarotea.

Bedar jaikien arteko bidoiak
itzuli bageko joana iragarten.

Tximistargi-abeak bakar-bakarrik
joan eta etorriakin
eta bularrak egapetzen dauanakin
begietatik biotzerainoko
itxaro-errenkada dabe marratzen.

EL OLVIDO

El olvido, el solo consuelo
a la impotencia del corazón.

Si olvidamos un poco
rostros y nombres,
no enterramos en sombra su amor,
sino que debemos vivir.

Lo que una vez hemos amado
mirada adentro
sigue llamándonos desde más allá
de las montañas o los mares.

AAZTUTZEA

Aaztutzea, pozkario bakarra
biotzaren eziñarentzako.

Arpegiak eta izenak
apur bat aaztu ba'dagiguz,
ez dogu arein maitasuna
gerizean lurperatzen:
bizi-azo bearra da.

Aldi baten barrura begira
maite izan dogunak
mendi ta kresalez gaindik
deika dausku jarraitzen.

CEMENTERIO DE LOS HEROES DE ARLINGTON

Hierbecita limpia para vosotros
en estas ondulaciones
y frondas de otoño serenas.

Como cuando muchachos
jugabais en las praderas
de Illinois o de Texas.

No erais héroes de mármol,
vidas frágiles en la luz.

Ahora sí el silencio
es heroico y puro himno
hacia la gloria o la esperanza.

No renuncia el corazón
al nuevo amanecer
detrás de las colinas.

El mundo va pasando.
Vosotros descansáis en paz,
en sublime olvido,
en risueña melancolía.

ARLIGTON'GO GIZURENEN ILTEGIA

Bedarño garbia zuentzat
izarmendu oneitan
eta udazkeneko zorba nareak.

Mutiko zintzazela
Illinois edo Texas'eko zelaietan
jolaska zenbiltzazenean legez.

Atxurdiñezko gizuren ez zintzazen,
bizitz auskor argitan.

Orain bai ixiltasuna
guren da, ta ereserki soilla,
aintzari naiz itxaroari buruz.

Biotzak ez dautso ukorik egiten
egun-senti barriari,
muiñoen bestekaldean.

Ludia igaroz doa.
Zuok egon baketsu,
gaiñ-gaiñeko aaztutzean,
kadentasun atsegintsuan.

FLORISTA

Muchacha que al par de mañana
traes tu carretilla de flores,
cómo iluminas de gracia
las nieblas de la ciudad.

Te hermosea el peso que llevas,
parece que los ramos frescos
devuelven su vida al delantal.

LORE-SALTZAILLEA

Goiz-aurkian zeure lore-burditxo
eskuan dakarzun neskatzari ori,
zuk bai eskertsu argitzen dozula
uri-zokoetako illunpeen altzoa.

Daroazun pixuak edertzen zaitu,
ta adar guriak amantalari bizia
itzulazten dautsoela dirudi.

23 DE DICIEMBRE

Voy recorriendo las calles
desiertas de noche fría
y llenas de Navidad.

De la niebla celeste
surgen las casas y los árboles
de la nueva creación.

Camino solo,
pero canto dentro
que el gozo de todos es mío.

Pero no puedo olvidar
la pobreza, el dolor, la angustia
detrás de esa niebla.

Cómo no es permitida nunca
la alegría sin memoria.
Cómo lo más dulce
debe temperarse con tristeza.

LOTAZILLAREN 23'GARRENA

Kaleak zear nabil,
gau otzezko kale iñor-bageak,
eta Gabon'ez bete-beteak.

Zerutiko laiño-beratik
dira sortzen izadi barriko
etxeak eta zugatzak.

Bakar-bakarrrik nabil,
baiña barruan dot abesa
guztien poza neure baita.

Ezin dot alan be aitzu
ezeukia, miña, atsekabea
laiño-be orren atzean.

Zelan iñoiz eztan laketua
gomutarik bako poztasuna.
Zelan gozo-samurrena
isturaz bear dan arindu.

NARANJAS

El obrero al anochecer
lleva a casa en la bolsa de mallas
unos kilos de naranjas.

Qué gran paz
cuando frenan chirriando los tranvías.
En cualquier rincón de este mundo
vive un amor sencillo.

Un destello de naranjas
de la mano obrera
se irradia sobre la vida.

LARANJAK

Langilleak illunkeran
etxera daroaz gartzazko ziskuan
kilo batzuk laranja.

Zelako bake ezia
tximist-burdiak txirrioska galdatzean.
Lurbira ontako edozein eskualdetan
maitasun xalo bat bizi da.

Esku langilletik,
laranjazko argi-zirtada
bizitz gain da ixurtzen.

PRIMAVERA

En medio de esta promesa de vida
que alcanza en olas el cuerpo,
cómo es el dolor más despiadado.

Esta flor inocente
o toda esta inmensa vida
no redimen el corazón.

En primavera sentimos otra primavera,
porque esto es apenas sufrimiento
y moverse de labios interrumpido.

La esperanza silenciosa
y un poco de amor
sea ya el destino incierto.

UDABARRI

Bizi-eskintza onen erdian
—soiña olatuetan jasorik—
samiña bai dala gogorrago.

Gaitzik bako lora onek
naiz bizi eskerga guzti onek
eztabe biotza askatzen.

Udabarriz beste udabarri bat oartzen,
au doi-doi baita oiñaze-atsekabe
ta ezpan-igiera urratua.

Itxarokizun ixilkorra
ta maitasun pizkat bedi
gaurtik izango ziur-eza.

COMO DE UN SERENO OLVIDO

Como de un sereno olvido
se cubre el año anterior,
cuando han pasado las cuatro estaciones
sobre la tierra.

Tan naturalmente sucede ante los ojos
este perpetuo comienzo.
Parece no importarnos que cada año
sean otras las hojas del árbol.

Pero no se engaña el corazón,
que medita la pregunta del pasado.

La felicidad
es resplandor que nos atraviesa
en inminencia y agonía,
frustración de un momento supremo.

AAZTUTZE NARO BATEZ

Aaztutze naro batez bezela
estaltzen da aurreko urtea,
lur gaiñetik lau urte-aroak
igaro diran une-unean.

Ain berez doa begi aurrean
aldi-oroko asiera au.
Zugatzen ostoak beste batzuk
urtero izanda be, guri ez dausku.

Ezta, ez, biotza lilluratzen,
igaro-itauna baitau ausnartzen.

Dizdiza da zoriona,
arriskuan eta il-zorian
aldez alde igaroten gaituna,
une nagusi baten pot-egitea.

PARQUE

Arboles de primavera
después de la lluvia
tiernos
y llenos de soledad.

Aún los niños no han venido
a pintar la luz,
ni los enamorados.

Pura soledad,
esperanza de todo,
más alto y más allá del pecho.

EZKURDI

Uda barriko zugatzak
euri ostean
samurrak
eta bakartadez beteak.

Aurrak eztira oindiño etorri
argiari margoa emotera,
ezta maite-minduak be.

Bakartade soilla,
oro itxarokizun,
bularrez goitik eta aruntzago.

VISITA A FAMILIARES Y AMIGOS

Ahora que estoy aquí, y vosotros,
todo es presencia
y chocamos en el aire la alegría.

Pero yo siento la voz muda
de los lugares de mi niñez.
Un silencio lejano
envuelve mi corazón
cuando miro la luz de vuestras caras.

Nuestra alegría se va hundiendo de nuevo
en el abismo de los años pasados.

Estamos y no estamos.
Todo es tránsito leve,
juego de rayos entre hojas.

Esta presencia cada vez más fugaz,
estas voces en el silencio del pasado.

Pero aquí empieza un nuevo amor.

SENDIKOAK ETA LAGUNAK IKUSTEN

Gaur emen nagon ezkerro, ta zuek,
dana dogu begiera
ta airean txil dagigu pozaz.

Baiña nik neure umezaro tokien
aots ixilla dot nabaitzen.
Urriñeko ixiltasun batek
biotza daust esitzen
zuen arpegi-argiari begi emotean.

Gure poza suntsituz doa barriro
igazitako urteen leza barruan.

Ba-gagoz eta ez gagoz.
Oro da igarotze ariña,
orri arteko izpi-jokua.

Gero ta igeskorrago dan begiera au,
joanaren ixilleko aots oneik.

Baiña maitasun barri bat
yaku ementxe asten.

A JESUCRISTO

Jesucristo, palabra la más hermosa,
luz y hombre verdadero.

Decirte cánticos como a Dios
en la mañana y en la noche.
En la pasión y en la miseria
con lágrimas interiores llamarte.
Buscarte en las ruinas del pasado
y en el pecho humano,
hecho un errante de Ti.
Hablarle en el vacío
con palabra de sangre y silencio.

Será la vida, y la muerte.

Si en un caos total de razones
naufrajas, me hundiré contigo,
y bien hundido estaré.

JESUKRISTO'RI

Jesukristo, itzik ederrena,
argi ta gizon egiazko.

Jainkoari lez kantuak Zuri
goizean eta illun-abarrean.
Zuri dei egin barne-malkotan
irritsean eta ezbearrean.
Zu billatu, bai, joanaren galtzean
eta gizonaren bularrean,
Zure etxa-iñes biurturik.
Zuri uts-unean itz egin
odol ta ixillezko itzakin.

Bizia izango da, ta eriotza.

Errazoizketazko naspil osoan
ondatu ba'zadiz, Zugaz ni be,
ta ondo murgildua nagoke.

Prólogo	6
Esculturas clásicas	10
Niños	12
Patio escolar	14
Qué habrá sido	16
Del pasado	18
Recuerdos de algún otoño	20
Niños subidos	24
Canto vasco	26
Por qué	28
Impresión en noviembre	30
Momento de la ordenación sacerdotal	32
El pensamiento	34
Segamos	36
Getsemaní	38
Es sólo el viento	40
Resurrección	42
Campos de Colombia	44
Sololá, en Guatemala	46
Guadalupe de Méjico	48
Lago de Dallas (diciembre, 1965)	52
Los tiempos	54
Concierto en Dallas	56
Lago de Dallas (octubre, 1967)	58
De la vida	60
Dilley	62
Las palabras	66
Barrio negro en Dallas	68

Itz-aurre	7
Zizel-iduriak	11
Umeak	13
Ikastolako larriña	15
Zer izan ete da	17
Igarotik	19
Udazken bateko gomutak	21
Mutikoak kerexetan	25
Euskal abestia	27
Zergaitik	29
Azillean zirrara	31
Apaiztu nintzan unekoa	33
Oldozkuna	35
Moztuten doguz	37
Getsemani	39
Aizea da bakarrik	41
Berbiztea	43
Kolonia'ko zelaiak	45
Solola, Guatemala'n	47
Mexiko'ko Guadalupe	49
Dallas'eko zingira (1965, lotazilla)	53
Garaiak	55
Eresaldia Dallas'en	57
Dallas'eko zingira (1967, urrilla)	59
Bizitza dala-ta	61
Dilley	63
Itzak	67
Auzotegi baltza, Dallas'en	69

Evangelio del sordomudo	70
En el tren	72
El olvido	74
Cementerio de los Héroes de Arlington ...	76
Florista	78
23 de diciembre	80
Naranjas	82
Primavera	84
Como de un sereno olvido	86
Parque	88
Visita a familiares y amigos	90
A Jesucristo	92

Gor-mutuaren Barri Ona	71
Bultzian	73
Aaztutzea	75
Arlington'go Gizurenen iltegia	77
Lore-saltzaillea	79
Lotazillaren 23'garrena	81
Larannjak	83
Udabarri	85
Aaztutze naro batez	87
Ezkurdi	89
Sendikoak eta lagunak ikusten	91
Jesukristo'ri	93

LUIS de AROSTEGUI

POEMAS INACABADOS

POEMA AMAITU BAKOAK

AITA ONAINDIA'K euskeratuta